

MOZIO ARRUNTA

KARLOS I.-eko ZUBIBIDEA DELA-ETA

Amaia Almirall, EH BILDU udal taldeko bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Karlos I.eko Zubibidea dela-eta.

JUSTIFIKAZIOA

Badira hamarnaka urte Karlos I.aren etorbidean hiriko sarbide/aterabide garrantzitsuenetakoa martxan jarri zela. Gerora, dentsitate handiko etxebizitzak eraikitzen joan ziren ingurune osoan eta zubibideko trafikoak, beraz, zarata kalte nabarmenak eragin dizkie inguruko bizilagunei urtetan zehar.

Errealitate honek bizilagunen gero eta kexa gehiago ekarri zituen eta Gipuzkoako errepide-sare nagusian egindako aldaketen ondotik ere, zubibidea kentzeko eztabaida mahaigainean jarri zen. 2005tik 2011ra bitartean zubibidea eraisteko konpromisoa agertu zuten foru gobernua, baina Bilduk gobernatu zuen aurreko legegintzaldira arte, ez zen alternatiba errealik proposatu, aurrekontua ezarri eta gauzatu. Ez zen ezertxo ere egin.

Amara Berriko bizilagunei erantzunez, Foru Aldundiak birmoldaketa egin zuen 2015ean eta haren ondorioz, zubibidearen zati handiena hiri etorbide bilakatu da: lur-arrasa kale-gunera jaitsi da, irteerarako bide bat kendu da, galtzada bakoitzaren zabalera murriztu egin da, 50 gune gisa arautu da, gune berdeak jarri dira, oinezkoen lurrazaleko pasabide eta semaforoak ezarri dira eta alboetako itxiturak erretiratu egin dira, bide batez, bidegorri lotura berri bat eraikiz. Eta hau guztia, gainera, hiriko sarbide eta aterabideen ibilgailu-trafikoak kaltetu gabe.

Nahiz eta zubibidea eraitsi ez, birmoldaketa sakon honek bizilagunekiko zarata-kaltea nabarmen murriztu da eta zubibideak suposatzen zuen auzoaren zatiketa, hein handi batean, gutxitu egin da. Hala ere, zenbait alderdi politikok birmoldaketa honen gutxiegitasuna salatu zuten eta zubibide osoaren eraisketa irtenbide bakartzat jo zuten. Nahiz eta alderdi politiko hauek, bai udal-hauteskunde programan, bai foru-hauteskundeenean, Karlos I.eko zubibidearen eraispena hitzeman zuten, berriki, 2015eko azaroko Ogasun eta Finantza Batzordean, Lurralde Antolaketa eta Mugikortasuneko foru diputatuak adierazi zuen ez dutela Karlos I.eko zubibidea eraisteko asmorik. Erantzun horrek nahasmen handia sortu du, Aldundian diren alderdi politikoek eta euren programa politikoak aurkakoa esaten baitute.

Horiek horrela, EH BILDU udal taldeak honakoa aurkezten du:

MOZIOA ARRUNTA

1.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari argitu dezala behin betiko zer egin nahi duen Karlos I.eko zubibidearekin, eta behar bezala aurkeztu diezaiela Donostiako Udalari eta Amara Berriko bizilagunei.

2.- Donostiako Udalbatzaren Osoko Bilkurak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari hartu ditzala beharrezko neurriak eta ezarri dezala aurrekontua Karlos I.eko sarbideak Amara Berriko bizilagunei eragiten dien kaltea eragozteko.

Donostian, 2016eko urtarrilaren 7a

Amaia Almirall Lopez de Luzuriaga
EH Bildu udal taldeko bozeramaile